

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK KUDEATUTAKO UDALERRIEN UDAL HORNIDURA-SAREAK DIGITALIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSTIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (ingurumenaren arloko enforcement digitala)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN (esp.: 3112).

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLaren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLaren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Gorka Robredo Arzuaga
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatutako udalerrien udal hornidura-sareen digitalizazioa. Europar Batasunaren Next Generation suspertze eta erresilientziarako mekanismoaren funtsekin finantzatu da espedientea, zehazki, «Itsasertza eta baliabide hidrikoak zaintzea» 5. osagaiaren barneko «Trantsizio digitala uraren sektorean (ingurumenaren arloko enforcement digitala)» izeneko 3. inbertsioaren esparruan. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Edateko uraren horniduraren kudeaketa hobetzea eta, horretarako, prozesu digitalizatu bat ezartzea. Udal hornidura-sareetan sistema digital baterako eraldaketa egiteak kudeaketa eraginkorragoa izatea eta eguneroko lanketak hobeto gainbegiratzea ahalbidetuko du. Ikuspegi horren ondorioz, erabilgarri dauden baliabideak modu egokian erabiliko dira, eta emandako zerbitzuaren kalitatea nabarmen hobetuko da. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzeari buruzko justifikazioa: Proiektuan jasotzen diren lan guztiek hornidura-sareetarako SCADA sisteman egiteko jarduketak barne hartzen dituzte. Beraz, ezin dira enpresa ezberdinen artean modu paraleloan egin. Horretarako, instalatutako ekipa ezberdinetako informazioa jaso, eta plataforma berean horien tratamendua eta irudikapena egin behar da, udalerrietako sistemetako hornidura-instalazio guztien informazioa modu bateratuan aztertu eta interpretatu ahal izateko (integratzaile bakarrak egiteko lana).

B.- KONTRATUAREN XEDEA
Laburbilduz, obra osorik barne hartuko duen lan-estrategia orokorra behar da, planteatutako azken arrakasta ziurtatzekoa. Horrek loteka lan egitea zailtzen du. Egin beharreko lanak errepikakorrak dira, hornidura-sareen ezaugarriak antzekoak baitira. Horrek merkatze adierazgarria dakar, lanak adjudikaziodun bakarrak eginez gero.
4.- CPV: CPV kodea:45232150-8 Deskribapena: Urak banatzeko hoditeriekin lotutako lanak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria
6.- Izaera juridikoa ☒Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA HIRUREHUN ETA BAT EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (579.301,36 €)
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 637.231,50 € Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak Ez da aldatetzat hartuko prestazioa behar bezala eman bitartean benetan gauzatutako unitate kopurua soilik aldatzea (kontratuan aurreikusitakoekin alderatuta); horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa ez bada.	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 2025. urtea: 289.650,68 € - 161.00.21.201 PARTIDA 2026. urtea: 289.650,68 € - 161.00. 21.201 PARTIDA	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☒ BAI ☐ EZ Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo	

C.- KONTRATUAREN PREZIOA
susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da. % 90eko kofinantzaketa: (BEZari dagokiona izan ezik)
7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagirien bidezkoa. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, lanen aurrerapen-mailari zer dagokion, honako ohar hauekin: Aurrerapen-mailaren arabera, exekutatutakoaren % 80 ordainduko da gehienez. Hornidurak harrera egiten zaienean ziurtatu ahal izango dira. Gainerako % 20a horrela ordainduko da: - Instalazioen egiaztapena eta proben amaiera: % 10 - Behin betiko dokumentazioa ematea: % 5 - Behin betiko harrera-akta sinatzea: % 5 Kontratistak eskainitako prezioaren % 20 atxikiko da funtzionamendua egiaztatzeko softwarea edo datuen eta seinaleen karga behar duten partidetan. Partida horiek ordainduko dira behin kontrol- eta automatismo-probak gainditu ondoren.
8.- Konturako abonauak: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: 12 HILABETE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.- Bermealdia: Bi urte, behin betiko harrera-akta sinatzen den egunean hasita. Bermeak gastua guztiak barne hartu behar ditu; ekipoen eta instalazioen eskulana eta desmuntaketa, bilketa, garraioa, konponketa edo ordezkapena, probak, eta abar.
5.- Kontratua exekutatzeko lekua: BBUPen instalazioak
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa ☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (579.301,36 €).

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera bereko lanak egiten izandako esperientzia. Hori egiaztatzeko, interesdunak azken sei urteetan egin dituen lanen edo horniduren, kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera berekoen, zerrenda aurkeztu beharko da, obra ongi egin izanaren ziurtagiriek ziurtatuta. Gutxieneko baldintza izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kuotaren % 70 edo handiagoa izatea.

LANBIDE-GAIKUNTZA

SCADA sistemako programazio-lanak egingo dituen enpresak Wonderware markaren «Archestra ziurtagiria» kualifikazioa duela egiaztatzeko agiria.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1. dokumentua: Memoria teknikoak. Lizitatzailerak memoria teknikoak aurkeztu beharko dute, kontratuko alderdi gakoak eta zehaztasun-maila identifikatuz eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez dagoela ziurtatuz. Preskripzioen agirian eta kontratuko gainerako dokumentuetan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea.

2. dokumentua: Exekuzio-metodologia. Proiektua egikaritzeko metodologia aurkeztu beharko dute lizitatzailerak; bertan, hauek proposatuko dituzte: lan-prozedura, oinarritzko edukia, antolakuntza eta plangintza (faseak eta kontrol-mugarriak barne), erantzuteko epe estimatuen konpromisoa, eta abar. Jarduera bakoitzaren irismena zein den zehaztu beharko da.

3. dokumentua: Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak. Lizitatzailerak lantaldearen osaera zein den adierazi beharko dute, obrako langileen organigrama batekin, irudi bakoitzaren prestakuntza eta esperientzia adierazita. Ziurtagirien eta ikastaroen egiaztapenak gaineratu beharko dira. Obrako zein lan azpikontratutako dituen eta bere langileekin zein egingo dituen argitu beharko du. Halaber, azpikontratutako enpresen konpromiso-gutuna aurkeztu beharko du, halakorik balego. Materialen edota ekipoen hornitzaileen konpromiso-gutunak gaineratu beharko dira. Informazioa SCADA sisteman txertatzeko lanak garatzen dituen enpresaren Archestra ziurtagiria, Wonderware markarena, gaineratu beharko da.

Proposamen teknikoak berrogeita hamar (50) orrialde izango ditu gehienez, zenbakituak. Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, indizea eta eranskinak 50 orrialde horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala, kontrazala eta atxikitako langileen curriculum vitaeak. 50 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 50 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Kanpo uzteko arrazoia izango da:

- AKPA agirian eskatzen den dokumentazioa eskatutako forma eta edukiarekin ez aurkeztea.
- Informazioa SCADA sisteman txertatzeko lanak garatzen dituen enpresaren Archestra ziurtagiria, Wonderware markarena, ez aurkeztea.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, nahitaez idatzita I. eranskinetako ereduari jarraikiz, eskaintako prezioan zerga guztiak, BEZa izan ezik, barne hartuta.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Prezioen zerrenda.
- Kontratuaren aurrekontua.

Neurketak eta/edo aurrekontua. Prezio bakoitzak neurketa bat du esleituta, eta lizitatzailleek ezin izango dute aldatu. Prezio unitarioak eratzeko, Excel orri bat atxikitzen da (ez du kontratuzko izaerarik). Orri hori kontratatari aurrekontua eratzeko laguntzeko helarazten da, eskaintza ekonomikoaren GUZTIZKOA eratu dezan, eskaintza osoa osatzen duten prezio unitario bakoitza adieraziz. Kontratuzko izaera duten prezioak PTPAn daude zehaztuta.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKParen 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciod eaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:

Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jn.

☐ Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri, baloratu beharreko alderdi gisa, erabili beharreko irizpideak, hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoa (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBM	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintza-zenbatekoaren arteko kendura zati lizitazio-aurrekontuaz egitean ateratzen dena, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{2} \times 2$$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

(Bmax - BBM)

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Eskaintza teknikoak 50 puntuko balioa izango du, K=1 koefizientearekin

1. Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia - 30 puntu

Alderdi hauek baloratuko dira:

- Kontratuaren funtsezko alderdiak identifikatzea, zehaztasun-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez egotea. Preskripzioen agirian eta kontratuko gainerako dokumentuetan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea. (10 puntu)
- Exekuzio-metodologia, jarduera bakoitzaren irismena, lan-prozedura, oinarritzko edukia zein xehetasunezko antolaketa eta plangintza (faseak eta kontrol-zedarriak adierazita) proposatzekoa. (20 puntu)

2. Obran erabilgarri dauden bitartekoak - 20 puntu

- Hornidura-sarearen funtzionamenduan ez eragotezko bitartekoak eta baliabideak. Kontratuan erabilgarri ipinitako makineria, bitarteko osagarriak, etab. (10 puntu)
- Antolaketa eta laneko ekipoak, eta agiri honetara egokitzea. (10 puntu)

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Zenbait eskaintzaren arteko berdinketa hautsiko da honako irizpide sozial hauek, eskaintzak aurkezteko epea bukatzeko momentuari buruzkoak, aplikatuz:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerik bakarra egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerik egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerik egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkaturik, aurkeztu duten.

- 4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:**
Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan 25 puntu gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztageria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

Klausula hauen baitan azpikontratatze zerbitzuetan edo lanetan, beti, BBUPen onespina izan beharko da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak onartzen dituen mugen barruan. Lizitatzailleek zer lan azpikontratatu dituzten adierazi beharko dute beren eskaintza teknikoan, eta zerbitzuak ematea adosten duten enpresek adostutako kontratuzko konpromisoak helaraziko dituzte.

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA	
OSAGAIA:	Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika: I. Hiri- eta landa-agenda eta despoblazioaren kontrako borroka. II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak. III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa. IV. XXI. menderako administrazioa. V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzailea sustatzea. VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea. VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena. VII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak. IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea. X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede. Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago («Eraldaketa digitala uraren sektorean»). Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du. Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze Planaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Europa eta Espainia mailako suspertze-plana erregulatzeko araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira: C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa. Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, <u>Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala</u>, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko. Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5I3 azpineurrian sartzen direnez, egingo diren jarduerak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren «Klimaren aldeko ekintzaren jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren

	<u>«Ura kudeatzea eta ur-baliabideak kontserbatzea (ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena, ihesak murriztea barne)» 040 esku hartzeko eremuarekin.</u> Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	URDATA BIZKAIA I (A15) + ESEPE URA (A03)
Kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf

KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEKO BETEKIZUNAK.

- BBUPen Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- BBUPen Ingurumen arloko betekizunak betetzea.
- Segurtasun eta Osasun Azterlaneko betekizunak betetzea.
- Lanean une oro prebentzio-baliabide bat izatea.
- Lanak zerbitzuaren beharren mende egongo dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Hori ez betetzea kontratua eteteko arrazoia izango da.
- Zerbitzuak lehentasuna du obrako lanen aurretik, eta, ondorioz, obraren jarduera harekin bateragarriak diren egun eta ordutegietara eramango da. Hori dela eta, honako hauek aurreikusi behar dira: gauez eta asteburuetan lan egitea, lanak egin bitartean eten luzeak egotea, eta kondizio jakin batzuetan lanak aldi baterako eta aurreikusi gabe etetea; hori guztia BBUPerako kostu gehigarriak gabe. Adjudikaziodunak ez du aparteko konpentsazio ekonomikorik izango horregatik, eta, ondorioz, kondizio horiek obra-prezioetan baloratu beharko ditu. Betekizun hori ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Adjudikaziodunaren akats edo zabartasun batek eragindako matxura edo istripu larri batek kontratua desegitea ekar dezake.
- Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- Kontratista deitutako bilkura guztietara bertaratu beharko da. Obraren jarraipena egiteko bileretan, kontratista arduratuko da bileraren akta idatzi eta BBUPi bidaltzeaz, hark onespena eman eta, beharrezkoa izanez gero, oharrak egin ditzan.